

ZABOR, BIO eta euskal kostalde osoko haurrek sortutako ehunka mezuk itsaso osasuntsua eskatzen dute

Astelehen honetan, apirilaren 22a, hasiko da Getarian ZABOR eta BIO erraldoiak eta Euskal Kostaldeko haurrek sortutako ehunka mezu eramango dituen erakusketa bira. ZERO ZABOR URETAN kanpainaren barruan aurten ere MATER eta bere tripulazio ekoaktiboak gidatzen duen ekimenetako bat da hau. MATEReko tripulazio ekoaktiboa eragileek, erakundeek, kolektiboek eta, batez ere, ekintzekin itsasoa eta etorkizun osasuntsuagoa bilatzen duten pertsonak osatzen dute.

ZERO ZABOR URETAN kanpainak hausnarketarako eta zaborren problematikari irtenbideak bilatzeko partaidetza-prozesu bat sortu nahi du. Bertan, gizarteko hainbat eragile inplikatzeko dira eta itsas zeharkaldi bat egiten da euskal kostalde osoan zehar MATER ontzi-museoan uztailean. Kanpaina honek Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Alduendien eta Libera proiektuaren lankidetzak du bere seigarren edizio honetan.

Itsasontziko zeharkaldia uztaile arte itzarongo den arren, Bilbo, Portugalete, Bermeo, Ondarroa, Mutriku, Getaria, Pasaia eta Hondarribiako herritarrak dagoeneko lanean hasi dira. Horren erakusgarri, umeak sortzen ari dituzten mezuak. Udalen laguntzarekin, sentsibilizazio- eta ahalduzko-hitzaldiak egin dira portu hauetan eta MATER taldeak komunitatean sortutako bi erraldoren lankidetzak estimagarria izan du, gure gizarteak ikusi nahi ez duena ikustarazteko: ZABOR, itsas hondakinen munstroa, egunetik egunera handiagoa egiten dena sortzen dugun hondakin kantitate jasangaitzarengatik eta ezinbestean gure ingurumen, eta beraz, gure gorputzera iristen dena; eta BIO: izaki bizidunen sare magiko hori, bizitzeko beharrezko baldintzak eskaintzen dizkiguna, hari atxikia garena eta alde guztietatik espoliatuz eta kutsatuz hain gutxi zaintzen duguna.

Nola egin dezakegu ZABOR txikiagoa izatea eta BIOren zaintza areagotzea? Premisa horretan oinarritu dira euskal kostaldeko haurrak mezuak sortzeko hain azkar doan gizarte honetan gelditu eta garrantzitsuena zer den hausnartu dezagun. "Ekintza bakoitzak balio du; gure ohiturekin eta eguneroko erosketarekin oso boto indartsua dugu nahi dugun etorkizuna posible egiteko, baina badirudi helduak garen aldetik kosta egiten zaigula ekintzara pasatzea eta gure erosotasun-eremutik irtetea; horregatik, helduok jasaten dugun erosotasun autosuntsitzailer hori oraindik pairatzen ez duten haurrekin lan egiten dugu" dio Izaskun Suberbiola MATEReko kanpainaren arduradunak.

Horregatik guztiagatik, apirilaren 22tik itsas zeharkaldia hasten den arte, ZABOR eta BIOa laguntza-mezu horiekin batera erakusketa ibiltari batean ikusi ahal izango dira, portu horiek guztiak zeharkatuko dituen, hondakinen murrizketaren mezua ozen eramanez. Informazio gehiago www.zeroboruretana.eus webgunean.